

1) BALOREZKO PROPOSAMENA

➤ **Helburu nagusia:**

Proiektua aurrera eramateko Sozietate Mugatu bat eratuko dugu eta gure misioa KM0ko produktuen salerosketa ahalbideratuko duen APP bat sortzea izango da Baliozko proposamena hornitzaile eta bezeroen artean bitartekaririk ez egotea da erlazio zuzena nabarmenduz., hots, KM0a.

➤ **Nola egingo dugu lan?:**

Nahiz eta bezeroen eskaera posibleak mota desberdinetakoak izan, nekazari eta abeltzainekin dugun lan harreman zuzen koordinatuari esker, bidalketak era pertsonalizatuan egin ahal izango diegu. Gainera, garraioaren kudeaketa gure baliabideekin egingo dugu

Web orriaren misioak hainbat atal kudeatzea dakar:

Merkaturatzen ditugun produktuak erabiltzeko **errezetak** proposatuko ditugu eta honek web orriko errezeten atalean erantsiko dira bideo tutorialen bitartez.

Bizi izan garen krisiak abeltzainek eta nekazariak erabiltzen dituzten baliabideak garestitzea ekarri du, hala nola, landareak zaintzeko produktuak, animaliak elikatzeko janaria... Azken finean, honek kooperatibetan erosten dituzte. Gure konpromezua **prezioak merkeagoa** jartzea izango da zuzenean gure Web orrialdean salduz.

Prestakuntza atal bat sortuko dugu non nekazari eta abeltzainek aukera izango dute beraien formakuntza garatzeko ikastaro desberdinen bitartez. Ikastaro horietan bai bezero zein nekazari eta abeltzainak parte hartuko dute. Ikastaro bakoitzak bere ordutegia, iraupena eta helburua ondo definituta izango du Web orrialdean.

Lan karga edota egoera berezian gauden pertsonen zuzenduta **menu bereziak** erosteko aukera emango diegu.

Aurretik aipatutako zerbitzuak honela definitu eta azalduko ditugu gure Web orrialdean:

➤ Web gunearen atalak:

Gure orrialdea:

[KUJY \(google.com\)](http://KUJY.google.com)

Gure enpresaren eta lehiakideen arteko aldea da hainbat produkturen eta nekazariren eskuragarritasuna web orriaren edo APP-aren barruan.

◆ **Bezeroei zuzendutako atala**

- Hasiera
 - * Gure helburua, misioa, nortzuk garen, logoa eta gure jardura definitzen duen irudi desberdinak jasotzen dituen gunea erantsiko dugu.
- Nortzuk gara
 - * Sarrera txiki bat egingo dugu gure enpresari eta haren funtzio nagusiei buruz.
- Produktuak
 - * Aukeratu zure menua; Gune honetan bezero desberdinei menuak bere etxean jasotzeko aukera emango diegu. Premia bereziak dituzten pertsonen arreta berezia eskainiko diegu: Menpeko pertsonak, adinekoak, haurrak...
 - * Produktu sortak (Okelak, begetalak edo mistoak).

- Ikastaroak; (Abeltzainek edota nekazariak emandakoak.)
 - * Ikastaroetara alta emateko eskabidea.
 - * Ikasleen banakako jarraipena.
- Errezetak
 - * Errezeta liburua.
 - * Bideo laguntzaileak errezetak egiten laguntzeko.
- Foro bat
 - * Atal honetan, edozein interesdunak idatz dezake gure enpresarekin zerikusia duten gaiak buruz.
- Nire kontua
 - * Atal honetan, bezeroek beren kontu pertsonalean sartu ahal izango dute, beren erosketak, sustapenak eta erosketa-orga ikusteko aukera izango dute, eta harremanetarako datuak aldatu ahal izango dituzte.
- Kontaktua
 - * Bezeroen eskura izango ditugu harremanetarako telefono bat, email bat eta formulario bat.
 - * Ohiko galderen atal bat gehituko dugu, gehien egindako galderak ebazteko.

➤ **Hornitzaileei Zuzendutako atala:**

Azpimarratzekoa da, halaber, abeltzainek edo nekazariak gure laguntza digitalaren bidez jasoko duten euskarria, abeltzaintza eta ekoizpen-prozesu osoa digitalizatu baitaiteke, kontabilitate merkataritza-prozesura. Ondorengo puntuetan azalduko ditugu ataza hauek:

- ◆ Eremu pribatua
 - Abereen eta landareen zenbaketa ahalbidetzen duen sistema informatikoa.
 - Animalia eta landareen zainketen egutegia eta sailkapen bat, hala nola, txertoak, desparasitazioa, fungizidak, herbizidak etab. (Gehien bat prozesu hau digitalki ez dutenei zuzendua).
- ◆ Erosketa saila
 - Animaliak zaintzeko eta elikatzeko behar diren lehengaiak.
 - Landareak zaintzeko behar diren produktuak.

Hau da, nekazari bakoitzak bere landareen erregistro bat eraman ahal izango du. Landaketa, landareetara botatuko produktuak, hil ziren landareak eta bildutako uzta landatu ziren datak barne. Abeltzainek, berriz, animalien erregistroa eraman ahal izango dute. Hau da, animalia bakoitzaren erregistro indibidualizatua. Horiei animalia bakoitzaren altak (sarrerak edo jaiotzak) eta bajak (salmentak eta heriotzak) gehitu ahal izango zaizkie; txertaketak eta sendagaiak; ekoizpena behien, ardiak, ahuntzen eta erleen kasuan; albaritza datuak eta haien behar osatzeko beharrezkoa den edozein datu.

Gainera, gure APParen ikusgarritasuna sustatzeko eta ahoz-ahoko publizitatea bultzatzeko, akordio desberdinak egingo ditugu hainbat Influencerekin.. Akordio bakoitza banakako tratatu eta jarraipena izango du.

➤ Laburbilduz, **gure baliozko** proposamena :

◆ **Balore kuantitatiboa:**

Produktuen prezio murrizketa bitartekaririk erabiliko ez dugulako. Izan ere, gu geu izango gara azken bezeroa abeltzainekin edo nekazariekin harremanetan jarriko dugunak, eta, beharrezkoa izanez gero, ahalik eta lasterren emango dugu garraio-zerbitzua, mozkin-marjinen barruan.

◆ **Balore kualitatiboa:**

APPari esker lehengaiak baserrietatik bertatik lortu eta kontsumitzaileen etxean eduki ditzakegu. Gaur egun, balio erantsia da hau, galtzen ari bai gara lehen eskuko produktuen kultura hori.

Produktua lehen eskutik erosteko aukerari esker kalitatea bermatuko dugu, produktu ultra-prozesatua edo industrialak baztertuz.

Garraio zerbitzu propioak erabiltzearen arrazoia jasangarritasunarekin eta ingurumenarekin dugun konpromisua izango da. Zergatik? Banaketa Ibilgailu elektrikoetan egiteko apustua egingo dugulako. Atal hau trantsizio batean egonda da. Hasieran kotxe bat izango dugu baina apurka apurka gure apustua flota guztia elektrikoa izatea izango da.